

**KAXILDO ALKORTA BARRENA:
UBERA GIZATIARRA UTZITAKO LAGUNA**

Getaria-Xabier-Bilbo

Kaxildo Alkorta Barrena Getarian jaio zen 1943ko apirilaren 3an. 10 urterekin, 1953an, batxilergoko *ingreso*-azterketa egin zuen Donostiako institutuan. Ama maistra zuenez, Kaxildo txikiak posible izan zuen sarrera-proba Getarian bertan prestatzea. Gero, Nafarroako Xabierrera doakigu, jesuiten ikastetxera, eta bertan egin zuen batxilergo *elementala* zeritzona (10-14). Errebalida baina, Iruñean egin behar izan zuen: “Hamalau urte genituela Iruñara joan ginen *errebalidako* azterketa egitera” diosku, 2012ko bere artikulu batean¹. Batxilergoaren bigarren etapa (14-16) ere Xabierren egin zuen, baina orduko *Curso Preuniversitario (Preu)* zeritzona jesuiten Donostiako Ategorrieta auzoko kolegioan burutu zuen. 1959-60 ikasturtean gaude.

Hamazazpi urterekin, Zaragozako Santa Maria de Veruelako kolegiara joan zen nobiziatua egitera. Han, nobiziatuko bi urteak eta betirako botoak egin zituen; baita Humanitateetako lehenengo urtea ere. Humanitateetako bigarren urtea Salamancan burutu zuen Kaxildok Hegoaldeko gainontzeko nobizioekin batera². Filosofiako hiru urteak (1964-67), Euskal He-

¹ “Agurrak (1)”, *Administrazioa euskaraz*, 75, 2012-urt., 4.

² 1962an sortu zen jesuiten Loiolako Probintzia eta horek posibilitatu egin

rrian bertan, Loiolan, burutu zituen getariar gazteak. 24 urte ditu Kaxildok. Oso ikasle ona, kultura, jendekina... Mikel Larunbe ikasketa-lagunak zioskunez³, Loiolan Kaxildok oso harreman ona izan zuen bertako *hermanoekin*, legoekin, eta sarri ere sarri joaten zen haien artera, ondo baitzekien nobizio gazteak *hermano* apal haiengandik ere, zer ikasi handi ere handia zeukana. Loiolan, “Loiolatxo” izeneko esperientzia ere azpimarratu beharrekoa da. Basilikatik hurre zegoen txoko txiki bat ei zen, non inguruko gazteak ziren protagonista: ibilaldiak, pilota-partiduak, euskal dantzak... Horretan guztian, Kaxildo izan zen animatzaile nagusia. Haren izaera gizatiar, xalo, euskaltzale eta eskuzabalak arlo askotan utzi zuen bere ukitu berezia.



Kaxildo, txistua eskutan duela, lagunez inguratuta⁴

zuen Hego Euskal Herriko nobizio guztiak ikastetxe bakar batera bildu ahal izatea. Hortik dator Nafarroako eta Gipuzkoako nobizioak beste euskal probintzietakoekin Salamancan batzea.

³ Mikel Larunbe Bidegainekin izandako elkarrizketa (Galdakao, 2021-12-27).

⁴ *Kaxildoren omenez: zure lankideak izan garenok*, Itxaropena, Zarautz, 2008, 3. or.

1967-69 urteetan Bilbora doa Kaxildo, Indautxuko kolegiara, han eskolak ematera. Irakasle-urte horiek jesuiten ibilbidetan ohikoak ziren, eta “maisu txiki” (*maestrillo*) izena ematen zitzaien Filosofia urteak amaituta zeuzkatenei⁵. Aldi hori amaiturik, 69-70 ikasturtean, Teologia ikasten hasi zen Deustuko unibertsitatean, eta konpainiak Bilboko Buenos Aires kalean zeukan pisu baten bizi izan zen beste ikasle batzuekin batera. Teologia-ikasketak hasita dituela, 1970ean, 27 urterekin, Kaxildo Alkorta Barrenak Jesusen Konpainia uztea erabaki zuen.

Nerbioi-ertzak lantoki, errioa bihotz

Bizimodu berrira egokitu behar-eta, lagun batzuen bitartez lana topatu ahal izan zuen, hasieran, bost bat hilabetez, pertsiana-fabrika baten (“Persianas Gangoiti”, Mungia), eta gero Mensajero argitaletxean, Bilboko Deustu auzoan. Tarte horretan Kaxildok Lutxanan izan zuen bere bizilekua, inguru horretan lanean zeuden ikaskide ohi batzuen pisuan, hain zuzen ere.

Handik denbora laburrera baina, jesuita-ikasketak alde batera utzi izanak Espainiako armadaren deia ekarri zion Kaxildori eta soldadu joan behar izan zuen (1972-73). Hasieran, Leongo El Ferral de Bernesga kanpamentuan egon zen, eta, gero, Valladolideko artilleria-kaserna baten. Adina kontuan hartuta –28-29 urte inguru– *beteranoa* izan zen lehenengo egunetik soldaduskan. Edozelan ere, Kaxildo ez dago geldi Espainiako lautadetan, eta *Giza zirriborroa* liburua idatzi zuen, 1972an argitaratu zena⁶. Liburuko ilustrazioak ere, Kaxildorenak dira. Kuartelean, etxera joateko baimena zuenetan,

⁵ Kaxildok, Xabierren, Aita Zavala izan zuen *maestrillo*, argitaratu gabeko idazki baten dioskunez (*Gure mutikotako Padre Zavala*, 3).

⁶ “Kaxildo Alkorta getariar kezkatia dogu. Eskulanean jarduna, eta soldaduskan dagoena; bere buruari, hartaz eta honetaz galde eta galde ari zaiona” (Mensajero, Bilbo, 1972, liburuaren kontrazala).

Kaxildo Lutzana industrialera, langile-girora, lagun zaharrena, itzuliko da beti.

Soldaduska amaitu eta handik lasterrera, 1973an, Kaxildo, Ezkerraldea utzi gabe, Portugalete herrira aldatu zen, bertara ezkondu baitzen Guruzne emaztearekin. Handik urtebetera, 1974an, Ekaitz semearen jaiotzak pozez bete zuen Portugaleteko etxea⁷. Garaitu horretan hasi zen lanean Kaxildo Sestaoko Patronato ikastetxean. Urte haietan, ikastolen aldeko mugimendua bor-borka zegoen, eta, Ezkerraldean ere, hainbat proiektu erne ziren, euren artean Sestaokoa. Bertan, bost urtez (1973-78) egon zen Kaxildo eta Portugaleteko ikastola berriko eraikinak prest egon zirenean, eskualdeko beste ikastola txiki batzuen bide beretik, haraxe aldatu zen Sestaoko Patronatoa ere, “Asti Leku” proiektuari hasiera emanez⁸. Portugaleten beste bost urte eman zituen Kaxildok irakasletzan, 1978tik 1983ra arte.

Bien bitartean, Filosofia tituluaren konbalidazioa zela-eta, Kaxildok hainbat arlo prestatu behar izan zituen jesuitekin egindako filosofia-ikasketak osotu eta hornitu ahal izateko. Madrileko *Universidad Complutense* delakoan azterketak egin eta gero, 1976. urtean bereganatu zuen Filosofia eta Letretako agiri akademikoa: “Jesuitetan egindako ikasketak baliozkotu egin behar ziren. Nik Filosofia ikasi nuen, eta hori Madrilgo unibertsitatean baliozkotzen zuten. Niri tituluia Loiolan eman zidaten ordea”⁹.

⁷ Han bizi izan zen 44 bat urtez. 2017az geroztik Bilbon bizi izan zen.

⁸ Manu Ormazabal Galartza lagunak esan zidanez (Portugalete, 2021-12-21), aldaketa azkar ere azkarra izan zen –egun bakar baten egin zuten lan guztia–, eta, kasualitatez, Kaxildoren urtegunean suertatu zen, 1978ko apirilaren 3an, hain zuzen ere.

⁹ Eizagirre, Iure: “Kaxildo Alkorta...”, *Artzape*, 211, 2021-otsaila, 16 [16-19]. Interesgarria da josulagun ohiak Loiolari egiten dion aitortza, hots, agiri ofiziala Madrilen eman ziotela, baina tituluia Loiolan lortu zuela azpimarratuz.

Kirolzale handia genuen Kaxildo Alkorta. Mendizale porrokatua¹⁰, baita pilotazale sutsua ere. Kaxildorekiko nire lehenengo gomuta, pilotaren ingurukoa da. Bilboko Basurtu auzoan frontoitzo bat zegoen “Jardines Iparralde” garagardotegiko beheko solairuan. Sei kuadroko pilotaleku txikitxo, 1928an inauguratua. Hantxe ezagutu nuen nik Kaxildo, bertara joaten zen-eta pilotaka. 1967-69 urteetan izango zen, urteotan Kaxildo Bilboko jesuiten kolegioan eskolak ematen egon zen garaian. Pilotaria zen Kaxildo gaztea, eta ez nolana hikoia. Hamaikatzo txapelketatan hartu izan zuen parte, anaia Anjelelaren uberari jarraituz.



Kaxildoren leku kutunetako bat: pilotalekua¹¹

¹⁰ “Toloño eta Gorbeia puntan/ Xiberuan nahiz Dulantzin/ Aizkorrin edo La Arboledan/ denak gogoratu ezin./ Batxikabotik Izarraraino/ denetan zure *mapekin*:/ hurrengo denak prestatzeari/ beharko diozu ekin” (*Kaxildoren omenez...*, 8. or.).

¹¹ *Ibidem*, 2. or. Eskumatik hasita, hirugarrena Juan Gangoiti (1928-2017) pilotari eta enpresa-gizon mungiarra. Jesuita-ikasketak utzita, haren lantokian lortu zuen Kaxildok bere lehenengo enplegua, norabide pertsonal berriari oratzean.

Nabarmentzekoa dena baina, gerora, pilota-taldeetan, eginiko lan eskerga da: Portugaleteko “Izarra” pilota-taldean kide eta bultzatzaile ez ezik, zuzendari ere izan zen¹²; Sestaoko “Lagun Artea” pilota-taldetik deitu, eta bertara laguntzera...¹³. Era berean, “Pilotarien Batzarra” (Heg.) taldeko elkartekide eta zuzendaritza taldekoa izan zen¹⁴. Pilota-munduan –pilota-eskoletan bereziki– Kaxildok eginiko lan eskerga goraiapatzekoa da, zinez.

Ataza berriak: betiko gizatasuna

Irakaskuntza utzirik, Kaxildok, hogeita bost urtez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP / HAEE) jardun zuen lanean, itzulpengintza arloan betiere. Hasieran Oñatin (1983-1985); eta, gero, Gasteizen (1985-2008), IZO¹⁵ itzultzaile-taldea-

¹² “Gaur inoiz baino gehiago eskerrak eman behar dizkiogu gizon bati, herri honetan [Portugalete] gure kirol maiteari bultzada handia eman eta gure klubaren presidente izan zen pertsona bati. [...] Baina batez ere gu, beste gauza batzuekin geratzen gara, bere hurbiltasuna, bere maitasuna eta beti eduki zuen jarrera, beti momenturen batean frontoiko errebotean umeren bategin pilotakada batzuk emateko prest, horrek egiten zintuen berezi”, 2021-10-11 (<https://www.facebook.com/Izarra-Pilota-Elkartea>).

¹³ “Desde el Grupo Pelotazale Lagun Artea de Sestao nuestro más sentido pésame a toda la familia de Kaxildo Alkorta. Pelotari, presidente y uno de los fundadores de Izarra Pilota Elkartea. Sin duda un icono de la pelota en Portugalete y una gran pérdida, Goian Bego Kaxildo!”. Lagun Artea, Sestao, 2021-10-11 (<https://www.facebook.com/lagunarte.sestao.1>).

¹⁴ “Kaxildo Alkorta Barena. Pilotarien Batzarraren zuzendaritzako kidea. Eskertzen dizugu zuk egindako lan guztia” (*Diario Vasco*, 2012-10-12).

¹⁵ IZO [Itzulpen Zerbitzu Ofizial]: “Haien buru nintzen, nahi bada, baina, batez ere, lagunak nituen, adiskide. [...] Hara!, gu 16 lagun izan ginen hasieran. Gaur egun, 48 ere badira, IZO eta Terminologia batuta, telelana ere nagusitzen ari da, lehen baino sakabanatuagoa dago jendea. Nik, Getariako kanposantuan ere, gogoan ditut garai haiek, zer polit, zer eder... Ahal duzuela, eutsi horri!” (Elustondo, Miel A.: “Kaxildo Alkorta: IVAPeko adiskide eta laguna”, *Administrazioa euskaraz*, 115, 2022-urt., 9-10 [6-12]). Lan ederra, zinez, Elustondorena. Azpimarratzekoa da –samurtasunez beratua, adiskidetasunez blaitua– Getariako kanposantuan gertatzen den balizko hizketaldia. Bertara joan zaizkio IVAPeko lagunak: “Manu Arrasate, Antton Burgoa, Edorta

ren arduradun modura, jubilatzeke garaia heldu zitzaion arte. Ohiko kolaboratzaile izan genuen *Administrazioa euskaraz* aldizkarian, baita erretreta hartu eta gero ere. Guztira, 60 artikulu zenbatu dizkiogu 1995-2021 urte-tartean, azkena hil aurretioxan argitaratua: “Lehen azterketa” (2021-uzt.). Testu batzuk teorikoak dira –hasierakoak, batez ere–, baina gehienak pasadizo edota kontakizun aberatsak, irakurterrazak eta umorez zipriztindutakoak. Memoria paregabea eta luma jori bezain umotuaren jabe genuen Kaxildo eta bazekien egoki txirikordatzen kultura klasikoa eta garaikidea; mundu zabala eta etxe ondoa; ahozko kultura eta idatzizkoa; ume-umetako bizikizunak eta bezperan hedabideek zekartena. Gomendatzeko moduko piezak dira, batera txukun jarriak, edizio polit bat atontzeko lain material eta mamia eduki daukatenak. Kolaboraziorik gehienek izen-abizen ondoan *Laguna* aila / gehigarritxoak daramate.



“Administrazioa euskaraz”, Kaxildoren idazki askoren talaia

España, Maite Imaz, Asier Madariaga... Hamaika lagun ere bazenituen zuk IVAPen. Getariako hilerrira etorri gaituzu...”.

Erretreta hartzeko garai heldu zitzaionean IVAPekeo lankideek omendu ez ezik, liburu samur eta sentitu bat ere atondu zioten (*Kaxildoren omenez: zure lankide izan garenok*¹⁶) non, erretratu interesgarri askoren ondoan Kaxildoren omenezko hainbat bertso eta testu agertzen diren. Liburuaren bigarren partean, Kaxildok lankideei jubilazio, ezkontza, aitatasun/amatasun edota lekualdatze kari opetsitakoak ikus ditzakegu. Bide beretik, Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko *diasporak*, hots, zerbitzu horretako lankide izandakoek artikuluko polit ere polita opetsi zion Kaxildori *Administrazioa euskaraz* aldizkariaren 2008ko urtarrileko zenbakian:

“IZOk asko galduko du, ez dudarik izan, baina asko irabaziko dute, era berean, mendi-grinak, pilota-munduak, Mendebalde Elkartek, Jagon Sailak, Getariak, Aulestik, Portugaletek... eta nola ez bere lagunek. Eta asko irabaziko du Kaxildok berak ere: agur hain goiz jaikitzeari, agur autobusean ez kabitzeari, agur amaierarik gabeko zuzenketei, agur lan-estualdiei, agur eguneroko joan-etorrietan hiru ordu inguru galtzeari. Baina, ongi etorri nahi duzuna nahi duzunean egiteari, ongi etorri Ezkerraldeko mendi zulatuak zeharkatzeari, ongi etorri itsas eta mendi-giroko herrietan ibiltzeari, ongi etorri... ondo baino hobeto merezitako aldiari”¹⁷.

Goiago aipatu dugu Kaxildok gaztetan argitaratutako liburu bat: *Giza-zirriborroa*¹⁸. Tamalez, *bere buruari, bartaz eta*

¹⁶ *Kaxildoren omenez: zure lankide izan garenok*, Itxaropena, Zarautz, 2008 (Manu Ormazabal esker heldu zen nire eskuetara liburu bitxi eta sentimenduz beteriko hori. Mila esker).

¹⁷ [España, Edortal: “IZOk diaspora handitzera doa”, *Administrazioa euskaraz*, 59, 2008-urt., 8.

¹⁸ “Hizketan gozo eta bulartsu, itsasoko gesalaz bustita ateratzen ziren hitzak haren ahotik, gozo. Desagertzeko arriskuan dagoen espeziekoa, Kaxildo. Giza zirriborroa idatzi zuen 1972an, garaian eskribitzen ez zen bezalako liburua. Apaletan begira hasi eta laster aurkitu dut. Zabaldut, eta zeharo ahaztuta neukana, hark berak sinatuta daukat, letra txukun: *Azpeitiko plazako arkupeetako elkarriketak jaso abal izanez gero, e?*” (Elustondo, Miel A.:

bonetaz galde eta galde ari zitzaiona, sormen-lanei zegokienez, mututu egin zen. Edozelan ere, pozgarria izan da ikus-tea Alvaro Ravellik oraintsu (2021) defendatutako doktorego tesian, “*Euskal ipuingintza garaikidearen Historia (1970etik 2010era)*” izeneko lan mardulean, Kaxildoren gaztetako obrari hainbat orrialde eta aipamen eskaintzea:


“Kaxildo Alkorta getariarraren *Giza zirriborrea* (1972) narrazio-bildumak gehiago du saiotik ipuinetik baino. Ia narrazio laburretan ematen sen hausnartze saioa [sic] dela esan genezake. Izan ere, garaiko existentzialismoaren ildotik, artean soldaduskan zegoen gazte bat besterik ez zela, gizakiaren existentzia definitzen dituen ohiko galderen erakusketa egin zigun. Egin berria zituen filosofia ikasketek eragin zuzena izan bide zuten liburu honetan. Azken batean, izenburuak salatzen duen bezala, gizakiaren izate osoaren zirriborrea egin zigun. Beharbada bere ikuspegitik konbentzionalenetik. *Giza zirriborrea*, beraz, saio eta ipuinaren artean geratzen den zerbait da. Oso muga lausoak ditu. Ez da benetako ipuin-bilduma, ia narraziorik ez dagoelako, baina, era berean, ez da saio erabat antolatua, barne hausnarketa laguntzen duten adibide eta testigantzak xumeak baino ez dira. Gainera, ez filosofo batek egingo zuen bezala, 1972ko idazle gazte baten xalotasunez baino”¹⁹.

“Arkupeak”, *Uztarri*, 2021-azaroa).

¹⁹ Rabelli, Alvaro: *Euskal ipuingintza garaikidearen Historia (1970etik 2010era)*, EHU / UPV, 2021, 118. Ikus, era berean: “4.2.1. Kaxildo Alkorta. *Giza Zirriborrea*”, 222-225.



Kaxildo, idazle, marrazkigile



Kaxildo, itzultzaile

Gerora, Kaxildok zenbait libururen itzulpenak atondu zituen, batez ere Mensajero argitaletxearekin. Hona, eurotariko batzuk: *Moby Dick*²⁰ (1977), *Gurutzatuen garaiko gotorleku bat: Zaldunen Krac-a* (1988), *Herriska bat Erdi Aroan*, *Luttrell* (1988), *Burdin aroko babes hiri bat*, *Biskupin* (1988), *Ehun urte baino gehiago arraunean* (2002), *Euskaldunen pilota jokoa...* (2009), *Elai Alai 2012. 50. urteurrena* (2012)... Mikel Larunbe lagunak esanda dakit Kaxildok udaldi asko aprobe txatu izan zituela Frantziara –batez ere, Bordele aldera–

²⁰ “Oso nobela luzea da *Moby Dick*, eta Kaxildo Alkortaren aspaldiko laburpen egoki egokitua da, nik dakidala, euskaraz daukagun bertsio bakarra. Itzulpen oso baten zain dago. Euskarara itzuli gabeko liburu bakar bat eskatu beharko banu hil aurretik gozatzeko, horixe estimatuko nuke nik: *Moby Dick*” (Lertxundi, Anjel: *Itzuliz usu begiak*, Alberdania, Irun, 2019, 89).

frantsesa lantzeraz joateko, eta han ere lagun ugari ere ugari egin zituela.

EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteko partaidea izan zen elkartearen sorreratik bertatik (1987), baita zuzendaritzako kide ere, 1988tik 1993ra bitartean²¹. Itzulpen alorreko Euskadi Literatura sariaren epaimahaikide izan zen 1989 urtean. Horri guztiari loturik, hiztegi gintzan eginiko lana ere aipatu daiteke, kasuon lan talde biren baitan: 1) UZEIrekin: *Nekazari-tza Hiztegia*, *Txirringintza Hiztegia*, *Arrantza Hiztegia*; eta 2) ADOREZ taldearekin: *Eskola Hiztegia*, *3000 Hiztegi Praktikoak* eta *5000 Hiztegia*.

Etxe maitatu bi: Mendebalde, Euskaltzaindia

Mendebalde Kultura Alkartea beste geltoki bat da Kaxildoren bizitzan. Elkartea 1993. urtean eratu zen Alfontso Irigoien euskaltzainaren gidaritzapean, helburu nagusi batekin, hots, mendebaldeko euskara aztertzea, lantzea eta *behar duien thornuia* ematea, betiere euskara orokor-batuaren mesedetan. Bizkaiko Aulesti herria eta hango berbakera barruraino barnetururik zeuzkan Kaxildo jatorra, handik hiru urtera, 1996an, Mendebaldeko kide egin zen, eta jubilatuta ostean, 2010etik aurrera, elkarteko zuzendaria²² izan da. 2012an Bizkaiko Foru

²¹ “Berria jakin orduko irakurri ahal izan ditugu haren lagunen hitz goxo eta esker onekoak. Izan ere, gizon apal eta aditsua bera, jende askorekin lan egiteko abagunea izan zuen, eta oso estimatua zen guztien artean” (EIZIE: “Kaxildo Alkorta EIZIEko bazkidea hil da”, <https://eizie.eus.eu>, 2021-10-19).

²² “Datorren ostegunean, urriaren 16an, Mendebalde Kultura Alkartea eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmena sinatuko dute Bilbon, goizeko 11:30ean, Euskaltzaindiaren egoitzan. Mendebalderen izenean Kaxildo Alkorta zuzendaria sinatuko du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburua.

Bi erakundeon arteko elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere. Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia elikatzeko asmoz, Mendebalde Kultur Alkartea argitaraturikoaren euskarazko

Aldundiak emanik, *Urrezko Luma* saria hartu zuen Bilboko Liburu Azokan Mendebalde Kultura Alkartearen zuzendaria zen aldetik²³. Honela gogoratzen zuen iazko otsailean bere jaioterriko aldizkarian egindako elkarrizketan Mendebalde elkarteak: “Arlo ezberdinetako jendea zegoen elkarteak: ezagunak, unibertsitateetako zein institutuuetako irakasleak... Gipuzkoar bakarra ni nintzen, eta azken hiru edo lau urteetan, presidente. Mendebaldeko Obama nintzela esaten nuen”²⁴.



*Mendebalde Kultura Alkartearen jardunaldi batzuen itxiera-ekitaldian*²⁵

testu-multzoa Akademiaren eskuetan jarriko duela jasotzen du hitzarmenak” (<https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri>).

²³ Isusi, Koldo: “Kaxildo Alkorta: ‘Bizkaierearen odola euskera batuarenzako sano aprobetxagarria da”, *Bizkaie!*, <https://bizkaie.biz>, 2012-06-11. Elkarrizketa zinez interesgarria.

²⁴ *Artzape*, 211, 2021-otsaila, 19.

²⁵ “Gogoia kirolean”, Euskaltzaindia, Bilbo (2013-05-03/04). Omendua J. A. Iribar Athletic Club taldeko atezain zarauztarra izan zen. Bateko, bere omenaldiko irabazi guztiak euskarazko kirol-hiztegigintzarako lagatzeagatik; eta, besteko, bere ibilbide profesionalean euskararekiko izandako sentsibilitateagatik.

Euskaltzaindian ere, lan mardula eginik joan zitzaigun Kaxildo. Euskalkien lantaldeko kide 2001etik, euskal akademiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 2013an. Hizkuntzarekiko kezka bizia zeukan Kaxildok. Berak oso euskara osasuntsua erabili arren, bazekien *–zegaitik edo bagaitik–* zelako odolustea nozitu izan duen euskal hizkuntzak azken hamarkadotan. Hori dela-eta, ahaleginak egin ohi zituen Hiztegi Batuak han-hor-hemengo berezitasunak jaso zitzaizkan, haien testigantza idatzia ez egonagatik. Honan, Patxi Uribarren euskaltzain emeritu eta Euskalkien lantaldeko arduradun eta lankideak dioskuna:

“Geroago, hainbat alditan elkarrekin bidelagun izateko zoria izan dugu. Gizon apala eta jatorra. Euskara benetan maite zuena. Eta Aulesti aldean egonaldiak egiten zituenetik bizkaiera barru-barrutik maite zuena. Horrek bultzatu zuen Mendebalde Kultur Elkartean gogotsu jardutera. Herritarren ahotik entzundakoak jaso eta aurreko gizaldietatik gugana heldutako altxorra maitasun handiz gordetzeko benetako ardura zuena”²⁶.



Euskaltzaindian, Euskalkien lantaldeko kideekin beharrean

²⁶ Uribarren, Patxi: “Kaxildo Alkorta, pertsona irekia, elkarrizketa gozokoa”, *Plazaberri*, 2021-10-11, <https://www.euskaltzaindia.eus>.

Mikel Larunbe lagunak zioenez, Kaxildo Xabierren, artean mutil bardingoa zela, antza, konturatu zen erderaz pentsatzen hasita zegoela. Horrek, jakina, inarrosi egin zion barrua, eta erabakia hartu zuen gogo-bihotzetan zuen altxorra joan ez zekion. Ez dago dudarik errotik lortu zuena bere guraria.



Euskaltzaindian, euskaltzain urgazle agiria jasotzean (2014-03-28)

Zintzoan samur, xumean xalo

Kaxildo lagunak, gaixotasun azkar baten ostean, iazko urriaren 10ean eman zuen azken hatsa. Ezuste handi ere handia gertatzen maite genuenontzat²⁷. Izan ere, 2021ean, zendu aurreko

²⁷ Edorta España Kaxildoren urteetako lankide eta lagun hurbilarena da hurrengo testigantza sentitua: “Edorta oroitzen denez, Kaxildo larri zegoela jakin zuen orduko idatzi zion mezua lagunari, baina Kaxildok gabe, semeak [Ekaitz Alkorta] erantzun zion, semearenean egin baitzuen azken hilabetea adiskide eta lagun genuenak. «Ekaitzek esan zidan aitak ez zuela hitz egiteko indarririk, baina bihotzez eskerrak ematen zizkidala, guztiagatik. ‘Kaxildo agur esaten ari da’, pentsatu nuen». Eta halaxe joan zen Kaxildo, nahi baino azkarrago” (“Kaxildo Alkorta: IVAPeko adiskide eta laguna”, 6).

hilabeteetan hiru artikulu argitaratu zituen Kaxildok *Administrazioa euskaraz* aldizkarian. Azkenak uztailleko zenbakian ikusi zuen argia: “Lehen azterketa”. Hamar urterekin, aitaren kamioian, *ingreso*-azterketa Donostiara doan mutikoaren gorabehera hunkigarriak. Gomendagarria, zinez. Apirileko artikuluan (“Martxoaren 8a”), Txekhov errusiar idazlearen ipuin baten bitartez, egun seinalatu horren sinbolismora garoaz Kaxildok. Eta 2021eko urtarrileko zenbakian, “*Egun handira arte?*” izenekoan, kontatzen digu denbora laburrean pertsona biren hiletalelizkizunetan egona zela; bata abade batena, eta, bestea, etxe-koandre batena. Sermoiak baina, diferenteak izan zirela: lehenengoa apur bat hanpatua; bigarrena, ostera, apaingarri askorik gabea; eta gure Kaxildori –apal ere apala izaki– bigarrena gehiago gustatu:

“Hitzaldiak, biak, ildo berekoak. Bietan hildakoaren bizitzakoak laburtuta azaldu zizkiguten. Erlijosio apaizarenean, ez ziren falta izan laudoriozko hitz zehatz batzuk –ez asko–. Normala, eta, ziur asko, zeruratuak mereziak. Amama etxe-koandrearenean, ez nuen laudoriozko hitz edo esaldi berezirik sumatu. Zenbait zertzeladaz ekarri zigun gogora emakumearen bizitza, samur²⁸ baina apaindurarik gabe, bere hartan. Ba al da, bada, laudorio hoberik bizitza zintzo bete duen inorentzat, bere egin zuen bizimodu xumea, xalo-xalo azaltzea baino?”²⁹.

Kaxildoren, iradokizun eder hori betetzen ahalegindu gara lerrootan, apaindura juxtuak erabiltzen saiatu gatzazkio, lan-tegi erraza ez izanagatik. Barka biezagu ez badugu lortu.

Edozelan ere, Kaxildo, samurtasuna, zintzotasuna, xumetasuna, xalotasuna... ze berba apalak, zeinen hitz egokiak, zure bizitzaren kronika egiteko!

²⁸ Letrakera lodia gurea da.

²⁹ Alkorta, Kaxildo: “Egun handira arte?”, *Administrazioa euskaraz*, 111, 2021-urt., 6.

Esandako guztiaren laburpena dateke Mendebalde Kultura Alkartean, Kaxildo gogoratu, *Berria* egunkarian agerturiko eskelan (2021-10-12), gomutagarri gisa, erantsitako lerrotxook:

*Kaxildo,
zure uberan, zenbat lan-ildo!
Lagun artean, berebiziko;
bizkuntza arloan, lehendabiziko.
Gizontasuna, samurtasuna...
Zenbat bertute...
Laguna!*

Bibliografia:

- ALKORTA, Kaxildo: *Giza zirriborroa*, Mensajero, Bilbo, 1972.
- ALKORTA, Kaxildo: [Hiztegitza] *Nekazaritza Hiztegia* (UZEI, 1995); *Txirrindularitza Hiztegia* (UZEI, 1996); *Arrantza Hiztegia* (UZEI, 1998); *5000 Hiztegia* (Adorez, 2006); *Eskola Hiztegia* (Adorez, 2013); *3000 Hiztegi Praktikoa* (Adorez, 2018).
- ALKORTA, Kaxildo / ORMAZABAL, Manu: “Batua, euskalkiek osotu, indartu eta joritu beharrekoa”, *Mendebaldeko euskeraren ekarria*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 1998, 99-110.
- ALKORTA, Kaxildo: *Administrazioa euskaraz* aldizkaria (IVAP / HAEE), 60 artikulua (1995-2021).
- ALKORTA, Kaxildo: “IZO zuzenketa-prozesua. Lehenengo zuzenketa. Zuzenketa-mailak”, *Senez*, 27, 2004, 47-62 (Burgoa eta Joseba Urkiarekin batera).
- ALKORTA, Kaxildo: “Babeletik EIZIEra Mendekostetik pasata”, *Senez*, 35, 2008, 249-251.
- ALKORTA, Kaxildo: “Gorhuan garrian ta gogoa kirolan”, *Gogoa kirolean*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2012, 7-12.

- ALKORTA, Kaxildo / BARRIOLA, Abel: “Kirola euskaldunaren izaeraren ezaugarrietakoa da”, *Gogoa kirolean*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2012, 57-69.
- ALKORTA, Kaxildo / URIARTE, Jose Ramon *Katxin*: “Euskaldunak munduan geure kirol baten bidez”, *Gogoa kirolean*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2012, 177-184.
- ALKORTA, Kaxildo: Mendebalde taldearen jardunaldietako liburuen zenbait aurkezpen-lan. / Jardunaldietako liburu-edizioak: *Egokitasuna bizkuntzaren erabileran* (argit. elkarlanean 2004); *Gogoa kirolean* (argit. elkarlanean, 2013)...
- ALKORTA, Kaxildo: *Gure mutikotako Aita Zavala* [argitara gabea]. Ikus: Esnal, Pello: *Antonio Zavala, zauria hauspo*, Auspoa Liburutegia, GFA, 332, Donostia, 2015, 38-39.
- ALTZIBAR, Koldo: “Giza zirriborroa-ren kritika dela eta”, *Anaitasuna*, 249, 1973-02-15.
- ASKOREN ARTEAN: *Kaxildoren omenez: zure lankide izan garenok*, Itxaropena, Zarautz, 2008.
- ARIZKUN, Jon: “Aldizkariaren lau kolaboratzaile mintzo”, *Administrazioa euskaraz*, 100. zenbakiaren separata, 2018-apirila.
- BASTERRETXEA, Amaia / LIZARRAGA, Kepa: *Euskaldunen pilota jokoa...* (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez), Euskal Museoa, Bilbo, 2009. Euskarazko itzulpena: Kaxildo Alkorta.
- BROCHARD, Philippe: *Gurutzatuen garaiko gotorleku bat: Zaldunen Krac-a*, Mensajero, Bilbo 1988. Itzultzailea: Kaxildo Alkorta.
- EIZAGIRRE, Iure: “Kaxildo Alkorta: Administrazioan ere, moldatzeko adina jakin askok, egin...”, *Artzape: Getariarren topagunea*, 211, 2021-otsaila, 16-19.
- ELUSTONDO, Miel A.: “Arkupeak”, *Uztarri*, 2021-azaroa.
- ELUSTONDO, Miel A.: “Kaxildo Alkorta: IVAPeko adiskide eta laguna”, *Administrazioa euskaraz*, 115, 2022-urt., 6-12.

- ESPAÑA, Edorta: “IZOkO diaspora handitzen doa”, *Administrazioa euskaraz*, 59, 2008-urt., 8.
- HARANBURU-ALTUNA, Luis: “Giza zirriborroa”, *Anaitasuna*, 247, 1973-01-15.
- ISUSI, Koldo: “Kaxildo Alkorta: Bizkaierearen odola euskera batuarentzako sano aprobezagarrria da”, *Bizkaie!*, <https://bizkaie.biz>, 2012-06-11.
- MELVILLE, Herman: *Moby Dick*, Mensajero, Bilbo, 1977 [1986]. Itzultzailea: Kaxildo Alkorta; marrazkiak: Jose Maria Legorburu.
- PAGOETA, Juan de: *Elai Alai 2012. 50. urteurrena*, Elai-Alai Kultur Elkarte, Portugalete, 2012. Itzultzailea: Kaxildo Alkorta.
- PIKABEA, Nerea: “Kaxildo Alkorta, Bilboko Mendebalde Kultura Alkarteko Lehendakaria”, *Administrazioa euskaraz*, 78, 2012-urria, 5.
- RAVELLI, Alvaro: *Euskal ipuingintza garaikidearen historia (1970etik 2010era)*, Doktorego Tesia, EHU / UPV, 2021.
- ROBERTSON, Jose Luis: *Ehun urte baino gehiago arraunean / Más de cien años bogando*, Zierbenako Udala. Zierbena, 2002. Itzultzailea: Kaxildo Alkorta.
- SANCHA, Sheila: *Herriska bat Erdi Aroan*, Luttrell, Mensajero, Bilbo, 1988. Itzultzailea: Kaxildo Alkorta.
- SOBERSKI, Grégoire: *Burdin aroko babes hiri bat, Biskupin*, Mensajero, Bilbo, 1988. Itzultzailea: Kaxildo Alkorta.

Iñaki Sarriugarte Irigoien